



**DERIOKO UDALA**

**Exp:2016-CAD-9**

**BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN ETA EKONOMIKOEN AGIRIA, DERIOKO UDAL  
ERAIKINAK ETA BULEGOAK BARRUTIK GARBITZEKO ZERBITZUA  
KONTRATATZEKO LEHIAKETA BIDEZ.**



## **DERIOKO UDALA**

### **EZAUGARRIEN KOADROA**

#### **A. Kontratuaren xedea**

Zerbitzu hau ematea: Preskripzio teknikoetan eta baldintza-agiri honetan azalduta dauden Derioko Udalaren eraikin eta bulegoak barrutik garbitzea.

#### **B. Prozedura eta tramitazioa**

Kontratazioak prozedura irekia du erregulazio bateratuari lotuta.

#### **C. Sail arduraduna**

Udal Zerbitzu Teknikoa

#### **D. Preskripzio teknikoen agiria**

Bai

#### **E. Kontratuaren datu ekonomikoak:**

##### **Lizitazioaren aurrekontua:**

AURREKONTU OSOA: 1.529.367,48 Euro, BEZarekin, kontratazioak irauten duen aldian, luzapenak barne. Urtean: 254.894,58 Euro, BEZarekin.

Kontratua (4 urte): 1.019.578,32 Euro, BEZarekin.

Luzapenak (2 urte): 509.789,16 Euro, BEZarekin.

##### **BEZ**

%21a (edo dagokiona aplikatzen den momentuan).

#### **F. Finantzazioa eta aurrekontu-partida**

Kontratazio honengatik sortutako gastua ordainduko da Udalak horretarako dituen partiden pentzura, ala hurrengo ekitaldietan ezarriko diren partiden arabera. Aipatutako esleipena eten egingo da kontratuak dakartzan obligazioak kasuan kasuko ekitaldian kreditua egokirik eta nahikorik ez badago.

#### **G. Hain urtetarako gastua**

Ez



## **DERIOKO UDALA**

### **H. Enpresen sailkapena**

Taldea: U Azpi-taldea: 1 Kategoria: 2

### **I. Behin behineko bermea**

Ez da jarri.

### **J. Behin betiko bermea**

Adjudikazioaren zenbatekoaren %5koa, BEZa sartuta.

### **K. Behin behineko bermea**

4 urte

### **L. Luzapenak**

2 urtez luza daiteke, bi aldeak ados jarritz gero eta espresuki.

### **M. Prezioaren ordaina**

Egindako zerbitzuen prezioa ordainduko da urteko aurreko hilabeteko faktura Udaleko Erregistroan aurkeztu eta gero, hilabeteko azken egunetik 30 egun naturaleko epean. Zerbitzua prestatu dela egiaztatu ondoren eta Alkatetzak sinatu eta gero faktura ordainduko da, zerbitzua prestatu egunetik 30eko epean.

Fakturan banakatuta egongo dira: kontzeptuak eta zenbatekoak (F atalean adierazitakoak)

### **N. Prezioak berraztertzea**

Preziorik ez da berraztertu behar.

### **O. Bermearen epea**

Bermea indarrean izango da kontratuak diraun bitartean eta zerbitzua jaso arte, edo zerbitzuarekin edo lanarekin adostasuna izan arte.



## **DERIOKO UDALA**

### **P. Esleitzeko irizpideak**

<b>IRIZPIDEAK</b>	<b>PUNTUAZIOA</b>	<b>MODUA</b>
Eskaintako proiektu teknikoaren kalitatea	30 puntu	Balio-judizioa
Hobekuntza gehigarriak	10 puntu	
Eskaintza ekonomikoa	50 puntu	Formula
Prezio unitarioak	10 puntu	

### **Q. Mahaia eratzea:**

Bai

### **R. Proposamenak aurkezteko moduak:**

Zuzenean, posta ziurtatuaz eta mezuz, Derioko Udaleko Erregistroan



## Aurkibidea

I. XEDAPEN OROKORRAK .....	7
1. klausula- Kontratuaren xedea.....	7
2. klausula- Kontratuaren bidez beteko diren administrazioaren premiak .....	7
3. klausula - Espedientearen tramitazioa eta adjudikazioaren prozedura .....	7
4. klausula - Kontratugilearen profila .....	8
5. klausula - Kontratuaren balore estimatua .....	8
6. klausula - Kontratuaren iraupena .....	9
7. klausula - Kontratuaren araubide juridikoa .....	9
8. klausula- Kontratatzeko gaitasuna.....	10
9. klausula - Kontratatzen sailkapena.....	13
II. XEDAPENAK LIZITAZIO, ADJUDIKAZIO ETA KONTRATUAREN FORMALIZAZIOARI BURUZ .....	14
10. klausula - Proposamenak eta dokumentu administratiboak aurkeztea .....	14
11. Klausula.- Kontratazio Mahaia.....	17
12. klausula- Adjudikatzeko irizpideak.....	18
13. klausula- Proposamenen irekidura .....	21
14. klausula- Dokumentazioaren errekerimendua .....	21
15. klausula- Behin betiko bermea .....	23
16. klausula – Uko egitea eta gutxiestea .....	23
17. klausula – Balio anormalak edo neurritz kanpokoak dituzten eskaintzak (SPKLTBko 152. artikulua).....	24
18. klausula – Kontratua adjudikatzea.....	24
19. klausula – Kontratua formalizatzea eta hobetzea .....	24
20. klausula – Dokumentazioa bueltatzea .....	24
21. klausula – Zerbitzuak gauzatzea eta berraztertzea .....	25
22. klausula – Kontratua gauzatzean kontrola.....	25
23. klausula – Lan programa.....	25
24. klausula – Kontratuaren erantzulea .....	25
25. klausula – Gorabeheren ebazpena.....	26
IV. ALDE BIEN ESKUBIDE ETA BETEKIZUNEI BURUZKO XEDAPENAK.....	26
26. klausula – Kontratista den enpresari ordainak.....	26
27. klausula – Esleipendunaren eskubideak eta betekizunak.....	27



## **DEGIKO UDALA**

28. klausula – Konfidentzialtasuna .....	29
29. klausula – Arau-haustek sailkatzea .....	30
30. klausula – Zigorak ez betetzeagatik .....	32
31. klausula – Aurreko espedientea .....	32
32. klausula- Administrazioaren eskubideak.....	33
<b>V. KONTRATUAK LAGATZEARI, AZPIKONTRATATZEARI BURUZ, SUBROGATZEARI ETA KONTRATUEN PREZIOAK BERRAZTERTZEARI BURUZKO XEDAPENAK .....</b>	<b>33</b>
33. klausula – Kontratua lagatzea .....	33
34. klausula - Azpikontratatzea .....	33
35. klausula – langileak subrogatzea .....	34
36. klausula – Prezioak berraztertzea .....	34
<b>VI. KONTRATUA ALDATZEARI ETA KONTRATUA ETETEARI BURUZKO XEDAPENAK.....</b>	<b>34</b>
37. klausula – Kontratua aldatzea .....	34
38. klausula – Kontratua etetea.....	35
<b>VVII. KONTRATUA AMAITZEARI BURUZKO XEDAPENAK.....</b>	<b>35</b>
39. klausula – Hartzea eta likidatzea .....	35
40. klausula – Bermearen epea eta behin betiko bermea itzultzea edo baliogabetzea.....	35
41. klausula – Kontratua haustea .....	36
<b>VIII. KONTRATUAREN DEUSEZTASUNeko ERREKURTSOAK, BEHIN-BEHINEKO NEURRIAK ETA KASU BEREZIAK.....</b>	<b>36</b>
42. klausula – Errekursoen erregimena.....	36
43. klausula – Behin-behineko neurriak.....	37
44. klausula – Baliogabetasun erregimena.....	37
45. klausula – Jurisdikzio eskuduna .....	37
<b>I. Eranskina- Karatularen eredia .....</b>	<b>38</b>
<b>II. Eranskina- Erantzukizunpeko adierazpena .....</b>	<b>39</b>
<b>III. Eranskina- Euskadiko Autonomiadun Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean datuak indarrean daudela egiaztatzeko adierazpen eredia .....</b>	<b>41</b>
<b>V. Eranskina- Proposamen ekonomikoaren eredia.....</b>	<b>43</b>
<b>VI. Eranskina- Behin betiko abalaren eredia.....</b>	<b>45</b>



**DERIOKO UDALA**

## **I. XEDAPEN OROKORRAK**

### **1. klausula- Kontratuaren xedea**

Baldintza Teknikoen agiri honen xedea da: Derioko Udalaren eraikinak eta bulegoak barrutik garbitzeko zerbitzua esleitzea. Baldintza Teknikoen agiriaren I. Eranskina.

CPV kodea:

909112000--8 Bulego, herri ikastetxe eta bulegoko ekipoen garbiketa zerbitzua.

CNPA kodea:

747013 Eraikinen barrualdearen ohiko garbiketa zerbitzuak

Kontratu honen kalifikazioa zerbitzuen administrazio kontratua da, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 10. artikulua aurreikusten duenarekin bat etorritik.

### **2. klausula- Kontratuaren bidez beteko diren administrazioaren premiak**

Kontratu honen lizitazioa sortu da kalitatea eta hori betetzean aurrezkoa izateko. Honakoan: toki ezberdinetan eta erabilera publikoa duten lorategietako elementuen kontserbazio eta mantenamendu zerbitzua.

Lizitazio honen xedea da, espazio eta elementu horien azterlan osoa. Horrek horien lizitazioa bermatuko du kudeaketa eraginkor baldintzetan, honakoetan oinarrituta: parametro ekonomikoetan, zerbitzuetan, aurrezki energetikoan eta neurri eraginkorren jarpenean.

### **3. klausula - Espedientearen tramitazioa eta adjudikazioaren prozedura**

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege-dekretu bidez onartutako Sektore Publikoaren kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratuaren arabera, hiri hondakin solidoen bilketa eta garraio zerbitzua II. Eranskinen 1etik 16rako kategorian sartzen da, eta kontratuaren prezioa 1.512.252 eurotik gorakoa denez gero (BEZa barne), Bateratuaren 16.1. b) artikulua eta bat datorren araudiaren arabera, Erregulazio harmonizatuko araubidera lotuta dagoen kontratua da.

Kontratuaren esleipena prozedura ireki bidezko kontratazioaren bidez egingo da, Sektore publikoko kontratuen Legearen testu bateratua onartzeko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 157 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, beraz, ezingo dira kontratuaren baldintzak negoziatu. Izapidetzea ohikoa izango da.

Eskaintzak baloratzeko eta ekonomikoki abantailatsuena den eskaintza zehazteko, kontratuaren xedearekin lotura duten hainbat irizpide izango dira kontuan, , Sektore



## **DERIOKO UDALA**

publikoko kontratuen Legearen testu bateratua onartzeko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak 150.1 artikuluan eta baldintza agiri honen 12. klausulan ezarritakoari jarraituz.

Kontratazio organoak ez du inolaz ere hutsik utziko, plegu honen irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenik baldin badago.

### **4. klausula - Kontratugilearen profila**

Kontratu-jarduerari buruzko informazioaren gardentasuna eta informazio hori herritarren esku egon dela ziurtatzeko bete edozein publizitate baliabide erabiltzeari kalterik egin gabe, Derioko Udalak webgunean kontratugilearen profila dauka, eta hor adierazten dira zer baldintza bete behar diren bertan sartzeko. Hona hemen helbidea: [www.deriokoudala.net](http://www.deriokoudala.net). Hori da ondorio informatiko guztietarako eta Estatuko Plataforman ezarritako publikazio guztietarako.

Lizitazailak, lizitazioan zehar, zalantzak helbide elektronikoa honetara bidali ditzakete: [kontratazioa@deriokoudala.net](mailto:kontratazioa@deriokoudala.net), Gardentasuna handiagoa izateko galdera eta erantzuna publikatuko dira Udalaren Kontratugilearen Profilean, Udalaren webgune honetan, [www.deriokoudala.net](http://www.deriokoudala.net), eta telefono biez.

### **5. klausula - Kontratuaren balore estimatua**

Kontratuaren balore estimatua da, guztira, 1.529.367,48 Euro, BEZa barne, kontratazioak diraun bitartean, luzapenak barne. Zenbateko hau honela banakatuta dago:

Urtean: 254.894,58 Euro, BEZa barne.

Kontratua (4 urte): 1.019.578,32 euro, BEZa barne.

Luzapenak (2 urte): 509.789,16 Euro, BEZa barne.

1. Kontratuari aplikatuko zaion BEZaren zama-tasa da %21<sup>a</sup>, edo momentu bakoitzean jartzen dena.

Dena den, BEZari dagokion zenbatekoa partida aparte batean jarriko da.

2. Lizitazailak, gutxienez, lanen, horniduren eta abarren prezio unitarioak aurkeztuko dituzte, baldintza teknikoan 4. Eranskinean zerrendatuta, Udalak katalogo erabilgarri bat





## **DERIOKO UDALA**

izan dezan; Udalaren ustez beharrekoa denean esleipendunak eskainitako prezioei aparteko zerbitzuak jarri behar zaizkienean. Lizitzaileek dituzten zerbitzu gehiago, hornidura gehiago eta abar ematen dituztela aurkitzen badituzte, eta horiek ez badago zerrendan sartuta, horiek gehitu beharko dituzte.

Katalogo horretan langileen prezioa/ordua sartuta egongo da, euren lan ezberdinetan banakatuta, horrela, Korporazioak beharrezkoa dela uste badu, kontratuan sartuta ez dauden lanak sartu ahal izateko. Honelako lanak ez dira sartuko plegu honen 36. Klausulak ikusten dituen aldaketan artean. Esleipendunak eskainitako prezio/orduari aplikatuko zaio pleguaren eguneratze prozedura.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, aurrekontua egotearen menpean dago lizitazio hau. Aurrekontu-partidek beharreko kreditua izan behar dute, kontratutik sortutako gastuei aurre egiteko.

Derioko Udaleko Zerbitzu Teknikoek zuzen kudeatuko du zerbitzu hau: Derioko udalaren eraikinak eta bulegoak barrualdetik garbitzeko zerbitzua. Eta harremanak izango ditu esleipendunekin.

### **6. klausula - Kontratuaren iraupena**

Kontratua 4 urterako da. Kontratua luzatu daiteke, alde biak ados izanez gero, eta espresuki, gehien, 2 urtebetez luzatu daiteke.

### **7. klausula - Kontratuaren araubide juridikoa**

Kontratuak administrazio izaera dauka. Administrazio baldintzen agiria eta preskripzio teknikoaren agiriak arautzen dute kontratua. Klausulak kontratua osatzen dute.

Halaber, alde biak honako arauen menpean daude:

- a) Azaroaren 14ko Legegintzako Errege Dekretua, Sektore publikoko Kontratuari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- b) Maiatzaren 8ko 817/2009 Dekretua, 30/2007 Legea partzialki garatzen duena
- c) Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoko Kontratuari buruzko Legearen Araudi Orokorra onartzen duena, eta indarrean dago 817/2009 Legegintzako Errege Dekretua indarrean sartu ondoren.
- d) Ekainaren 22ko 11/2007 Legea, zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoari buruzkoa dena, eta hori garatzeko araudia.



## **DERIOKO UDALA**

- e) Eta ordezeko moduan aplikatuko dira administrazioko zuzenbideko gainerako arauak, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

Kontratatik, nahiz eta ez ezagutu kontratuaren zehaztasunak, kontratuari erantsitako agiriak edo Administrazioak onartutako jarraibide, klausula agiri edo era guztietako arauak, eta horiek guztiak hitzartutakoa betetzeko aplikatu beharrekoak badira, guztiak betetzeko obligazioa izaten jarraituko du, ez da horregatik betebeharreretatik salbuetsita geldituko.

### **8. klausula- Kontratatze gaitasuna**

Kontratatze gaitasuna izango dute pertsona fisikoek edo juridikoek, enpresek edo legez erabakitako kooperatibek, betiere gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna badituzte, bat etorritik Sektore Publikoko Kontratuari buruzko Legearen testu bateginaren 54. eta 59. artikuluen artean zehaztutakoarekin, eta ez badaude aipatu legeak 60. artikuluan adierazitako egoeraren batean.

Ezingo dituzte langile gisa hartu Derioko Udalean jardunean daudenak.

Administrazioak xede horretarako aldi baterako enpresak edo enpresen elkarteak osatzen dituztenekin kontratuak egin ahal izango ditu (ez da beharrezkoa izango horiek eskritura publikoetan formalizatzea, harik eta esleipena egin arte). Horiek gizartearen aurrean solidarioki erantzungo dute eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatuko dute.

Enpresen helburua edo jarduera zuzenean lotuta egon behar da kontratuaren xedearekin, euren estatutuetan edo sorrerako araudian ezarrita dagoenaren arabera, eta behar bezala egiaztatzen badute. Halaber, enpresek antolaketa bat izango dute kontratua behar bezala gauzatzeko behar besteko elementu pertsonal eta materialekin.

Kontratu honen zehaztapen teknikoak edo kontratua prestatzeko dokumentuak egiten lagundu duten enpresek ezin izango dute lizitazio honetan parte hartu, betiere parte-hartze horrek lehiaketa askean parte hartzea eragotzi ahal badu edo gainerako enpresa lizitatzailerikiko pribilegiozko tratua eragin ahal badu.

Plegu honetan dauden jarduteko gaitasuna, ordezkaria, erantzukizunpeko adierazpena eta kontratistaren sailkapena egiaztatzeko dokumentuak aurkeztu beharrean, horiek ziurtatzen duen dokumentua aurkeztu dezakete, baldin eta hori honakoek egin badute:

- ✓ Euskadiko Autonomiadun Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialeko Letratua
- ✓ Estatuko Lizitatzailerik eta Enpresen Erregistro Ofiziala.
- ✓ Sailkapenaren erkidegoko ziurtagiria

Dagokion Erregistroan aurkeztutako ziurtagiriak biltzen ez duen zirkunstantzia honekin batera joango da. Dagokion erregistroak emandako ziurtagirian jaso ez diren inguruabarrei dagokienez, eskatutako egiaztapenak aurkeztu beharko dira:



## **DERIOKO UDALA**

1. – Inskripzioaren agiria, laburpeneko fitxarekin, enpresariaren ordezkari legalaren adierazpen arduratsuarekin, erregistro honetan dauden inguruabarrak ez dutenean inolako aldaketarik izan eta eguneratuta dudenean. (III: ERANSKINA).

Kasu horretan, lizitatzailleek ez dute aurkeztu behar nortasun juridikoa, ordezkapena eta kaudimen teknikoa tea ekonomikoa egiaztatzen duen dokumentazioa.

2. – Enpresek, kasua denean, zein enpresa taldeko kidea den adierazpena aurkeztuko dute, horretan, hala dagokionean, enpresek euren enpresa-taldeari buruzko adierazpen bat aurkeztu behar dute eta agiri horretan adieraziko dituzte taldea zer enpresek osatzen duten eta taldearen izena zein den. Horrela ikusiko da, hala badagokio, ohiz kanpoko edo neurritz kanpoko baloreak jartzeagatik proposamenak bete daitezkeen.

3. – Ahalorde-askiespena jardunean den abokatu batek edo Korporazioko idazkariak formalizatu beharko du, horretarako ezarritako tasak ordaindu ostean.

4. - Enpresariaren nortasuna eta, hala badagokio, proposamena izenpetzen duenaren ordezkari egiaztatzen duten agiria edo agiriak:

4.1.- Lizitatzaillearen NAN/IFZren fotokopia behar bezala kautotuta.

4.2.- Eskritura, sozietate, kooperatiba edo abar eratzeari buruzkoa dena. Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, eta baita euren aldaketak edo aldakuntzak, bai originalean, bai notario batek kopia kautotuan, bai zuzenbideak onartutako edozein modutan.

4.3. – Beste pertsona bat ordezkatzeko den kasuetan, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutako sozietatea ordezkatzeko duenaren ahalorde-eskritura; eskritura horrek jarduteko ahalmen nahikoa emango dio ordezkariari, eta Korporazioko idazkariak edo notario batek baimendu eta balioetsiko du. (Gutxienez 48 ordu lehenago aurkeztu beharko da Derioko udaletxeko idazkaritzan, prozedura honetan parte har dezakeela ziurtatu ahal izateko). Ahalorde-askiespenaren tasak oniritzia eman aurretik ordaindu behar dira (nahitaezkoa da oniritzia lortzea).

4.4. - Ordezkoaren NANaren fotokopia, behar bezala kautotuta.

5.- Lizitatzailleak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar du, azaroaren 14ko Sektore Publikoko Kontratuen 3/2011 Legearen Testu Bateratuaren (SPKLTB) 60. artikuluan kontratatutako ezarritako debekuetatik bat bera ez duela agertzeko (II: ERANSKINA). Aitorpen horretan adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

6. - Enpresaren sailkapenaren egiaztageria



## **DEGIKO UDALA**

7. - Kontratua gauzatzeko nahiko baliabide pertsonal edo materialak jartzeko edo eratzitzeko konpromisoa.
8. - Sektore publikoko Kontratuen Legearen testu bateratuaren 4. gehigarriko xedapenean aipatutako betebeharrak betetzen dituela egiaztatzea.
9. - Atzerriko enpresak badira:
  - a) Europar Batasuneko partaideak diren edo Europar Eremu Ekonomikoari buruzko Akordioaren sinatzaileak diren estatuetako eta espainiarrak ez diren enpresen jarduteko gaitasuna, azaroaren 14ko Sektore Publikoko Kontratuen 3/2011 Legea (SPKLTB) onartzen duen Legegintzako Errege Dekretuaren 55. artikulua jartze duen terminoetan egiaztatuko da.
  - b) Enpresa atzerritarrek, kontratuaren ondorioz, bai zuzenean bai zeharka, sortu daitezkeen gertaera guztientzako, edozein mailako auzitegi eta epaitegi espainiarren menpe jarriko direnaren adierazpena aurkeztu beharko dute. Bere kasuan, lizitatuak legokiokeen lege foru atzerritarren uko eginez. Azaroaren 14ko Sektore Publikoko Kontratuen 3/2011 Legea (SPKLTB) onartzen duen Legegintzako Errege Dekretuaren 146.1.d). artikulua araberaz.
  - c) Enpresen erkidegoko sailkapena, SPKLTBko 84. artikulua xedatzen duenaren arabera.
- 10.- Enpresek lehiaketa jotzen badute aldi baterako enpresa-batasuna eratuz:
  - Talde kide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu, aurreko atalen arabera.
  - Ahalorde bakar bat izendatu eta ordezkari horrek behar hainbateko ahalmena izango du, kontratu horretatik ondorioztatzen diren eskubideak eta betebeharrak egikaritzeko.
  - Eskumeneko zerga arloko administrazioak emandako behin-behineko IFZ jarri ahal izango da. Elkarrekin, esleipena jaso ondoren, eskritura publikoan eratu izana egiaztatu eta behin betiko IFZ aurkeztu beharko du.
  - Kontratuaren esleipendunak badira, aldi baterako elkarte eratzeko konpromiso formala.
11. - Hala dagokionean, enpresek beraien enpresa-taldeari buruzko adierazpen bat aurkeztu behar dute eta agiri horretan adieraziko dituzte taldea zer enpresek osatzen duten eta taldearen izena zein den. Horrela ikusiko da, hala badagokio, ohiz kanpoko edo neurritz kanpoko baloreak jartzeagatik proposamenak bete daitezkeen.
12. - Konfidentzialtasun-aitorpena; bertan zehaztuko da, A kartazalean, nortasunari eta kaudimenari dagozkien ataletan hain zuzen, aurkeztutako zer dokumentu eta/edo datu diren



## **DERIOKO UDALA**

konfidentzialak enpresa lizitzaileen ustez. Erabiltzaileen eskura dauden dokumentuak ezingo dira inolaz ere konfidentzialtzat jo.

13. - Enpresaren konpromiso formala, Derioko Udalaren eraikinak eta bulegoak barrutik garbitzeko zerbitzuaren kontratuari atxikitako pertsonen lan-harremana subrogatzeko (enpresa-subrogazioa), bat etorritz baldintza administratiboen, ekonomikoen eta teknikoen pleguek ezartzen dutenarekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratatzaileen Erregistro Ofizialean izena eman duela egiaztatzen duen agiria aurkeztutakoan, lizitzaileak erantzukizun-aitorpena aurkeztu beharko du. Agiri horretan adieraziko da ziurtagirietan agertzen diren egoerak ez direla aldatu, SPKLren 146.3 artikuluan xedatutakoaren arabera eta atxikitako eredia erabiliz (III. ERANSKINA). Kasu horretan, 4.3 atalean adierazitako ahalmen-balioestea ere nahitaezkoa izango da.

### **9. klausula - Kontratistaren sailkapena**

Kontratu honen zenbatekoa kontuan hartuta eta abuztuaren 28ko 773/2015 Errege Dekretuaren 3. atalean, 11. artikulua xedatzen duenarekin bat etorritz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Araudi Orokorren prezeptuak aldatzen dituen, kontratatzeko derrigorrezko baldintza da enpresariak honako sailkapena edukitzea:

Taldea: U Azpi-taldea: 1 Kategoría: 2

Gainera, enpresariak bere kaudimena egiaztatu ahal izango du bai bere sailkapena erabiliz, bai agiri honetan eskatutako betekizun zehatzak bete dituela ziurtatuz.

**KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA:** Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzeko irizpidea lizitzailearen edo hautagaiaren urteko negozio-bolumena izango da; eta, amaituak diren azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, bolumen hori, gutxienez, kontratuaren balio zenbatetsiaren bat eta erdiri dagokiona izango da, haren iraupena urtebete baino gutxiagokoa denean. Merkataritza Erregistroan aurkeztu dituzten kontuen bidez, enpresaria erregistro horretan izena emanda badago; eta hala ez bada, izena emanda dagoen erregistro ofizialean aurkeztutako kontuen bidez. Merkataritza Erregistroan izena emanda ez dauden banakako enpresariak haien urteko negozio-bolumena egiaztatzeko Merkataritza Erregistroak legezkatutako urteko inbentario eta kontuen liburuak aurkeztuko dituzte.

Kaudimen tekniko eta profesionala. Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzeko irizpide hau erabiliko da: kontratuaren xedearen antzeko lanak edo hornidurak egiten zer esperientzia duen. Horretarako, azken bost urteetan egindako kontratu honen izaera bereko lan edo horniduren zerrenda aurkeztuko da, eta baita kontratuak ondo egikaritu izanaren egiaztagiria ere. Eta gutxienezko baldintza hau izango da: egikaritze handieneko urtean pilotutako zenbatekoa, gutxienez, kontratuaren balioaren % 70 edo gehiago izatea, edo



## **DERIOKO UDALA**

urteko batez bestekoaren % 70 edo gehiago, batez besteko hori kontratuaren balioa baino txikiagoa bada.

Egiaztatutako lanak eta kontratuaren helburu direnen arteko korrespondentzia determinatze aldera, azken horri aplikatzeko sailkapena dagoenean, batzuk zein besteak parte diren sailkapeneko taldea eta azpitaldea hartuko dira erreferentzi gisa, eta gainerako kasuetan, bakoitzari dagokion CPV kodigoen lehenengo bi digituen arteko kointzidentziari erreparatuko zaio.

## **II. XEDAPENAK LIZITAZIO, ADJUDIKAZIO ETA KONTRATUAREN FORMALIZAZIOARI BURUZ**

### **10. klausula - Proposamenak eta dokumentu administratiboak aurkeztea**

Eskaintzak aurkeztuko dira Derioko Udaletxean, Euskal Herria kalea, 3, ordutegi honetan, goizez, 9:00etatik 13:00etara, 40 eguneko epean, kontratua Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera eta Estatuko Plataformara bidaltzen den egunetik kontatzen hasita. Hala ere, pleguetarako eta agiri osagarrietarako irispidea bitarteko elektrikoaren bitartez eskaintzen denean, epea 40 egunekoa izango da, kontratuaren iragarkia EBAOra bidaltzen den egunetik kontatzen hasita.

Eskaintzak aurkeztu ahal izango dira Derio Udaletxean, Euskal Herria kalea 3 (48160 Derio) edo, azaroaren 26ko 30/1992 legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 38.4 artikuluan zehaztutako edozein modutan. (SPKLTBko 159artikulua).

Eskaintzak korreoz bidaltzen direnean, enpresariak postetxean eskaintza zein egunetan sartu den justifikatu beharko du eta kontratazio organoari eskaintza bidali dela jakinarazi beharko zaio telefaxeaz, faxez edo telegramaz egun berean. Eta jarri ditu: espedientearen zenbakia, kontratuaren xedearen titulu osoa eta lizitatzailaren izena.

Telex, fax edo telegrama hori jaso dela egiaztatuko du udal idazkariak. Bi baldintza horiek betetzen ez badira, proposamenak aurkezteko epea bukatu ondoren jasotako proposamenik ez da onartuko. Dena den, jarritako epea igaro eta hurrengo bost egun naturalak igaro ostean ez bada proposamena jaso, ez da inolaz ere onartuko

Proposamenak Udaletxean zuzen aurkeztu daitezke, edo posta arruntez bidali daitezke. Horrela Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Araudi Orokorraren 4. ataleko 80. artikuluan xedatutakoa betetzen da.

Lizitatzaille bakoitzak eskaintza bat baino ezin du aurkeztu (SPKLTBko testu bateginak onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 145–148 bitarteko artikuluetan xedatutakoari kalterik egin gabe). Era berean, ezingo du enpresen aldi baterako



## **DERIOKO UDALA**

elkarteen bidez eskaintzarik aurkeztu, bakarrik zein aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan parte hartu badu. Arau hauek hautsiz gero, berak izenpetutako eskaera guztiak baztertuko dira.

Proposamena aurkezteak plegu honetan xedatutakoa oso-osorik onartzen duela ulertuko da.

Proposamenean hiru kartazal izango ditute: A, B eta C. Kartazal bakoitzaren barruan idatziko dira: enpresa/entitate/pertsona fisikoaren izena, proposamena sinatzen duen pertsonaren izena eta abizenak, eta harreman-pertsonaren helbidea, telefonoa eta faxa jakinarazpenak egiteko. Hori guztia izango da Eranskinean dagoen kartazal-karatularen ereduarekin, eta inskripzio hau izango du:

**"PROPOSAMENA ZERBITZU HAU KONTRATATZEKO: DERIOKO UDALAREN ERAIKINAK ETA BULEGOAK BARRUTIK GARBITZEKO ZERBITZUA"**

Kartazal bakoitzak, aparteko orrian, aurkezten diren dokumentuen zerrenda izango dute, eta baita dokumentazio bera ere, hori originala edo behar bezala egiaztatua izan beharko da indarrean dagoen legegintzaren arabera. Atzerriko enpresek dokumentazioa ofizialki itzulita aurkeztu behar dute, euskaraz eta/edo gaztelaniaz. Era berean, edukia jarraian zehaztuta dagoen moduan jaso beharko dute:

Lizitatuzaileek dokumentazio guztia entregatuko dute Derioko Udaletxean paperean edo euskarri informatikoan (CD edo Pen Drive), eta artxiboak bateragarriak izango dira Udalean jarritakoekin (Word, Excel, PDF...).

### **A) A kartazala,**

- Erantzukizunpeko Adierazpen: (Agirian I. Eranskinaren arabera), horretan lizitatuzaileak adierazi behar du kontratatzeko baldintzak betetzen dituela, eta zehazki, Agiri honetan adierazitakoak, eta horrela egiaztatzen duen dokumentazioa daukala, eta konpromisoa hartzen du edozein momentutan aurkezteko kontratazio organoak eskatuta, eta esleipenduna bada, esleipena egin aurretik aurkeztu du dokumentazioa.

Adierazpen honen edukia aurreikusitako eredura egokituko da, eta ereduaren bezalakoa ez izatea lizitazioz kanpo geratzeko arrazoia izan daiteke.

Proposamenean aurkezteko epea amaitzen denean aztertuko da legediak eta agiri honek eskatutako baldintzak betetzen diren ala ez

Gainera, helbide elektronikoko bat aipatuko da jakinerazpenak egiteko helburuarekin.

### **B) B kartazala, balioetsi beharreko dokumentazioa. Ondoren adierazitako dokumentuak sartuko dira bertan, eta ez dituzte 100 orrialde (50 orri alde bietatik) baino gehiago**



## **DERIOKO UDALA**

izango. Horrez gain orrialdeak ondo zenbatuta egon beharko dira, eta hurrengo paragrafoetan aipatutako atalak erabiliko dira dokumentuak sailkatzeko.

### **1. Proiektu teknikoa**

Lizitatuzaileak proiektu tekniko bat aurkeztuko du, eta proiektu horretan honako alderdi hauek jasoko ditu, gutxienez:

- Lanen planifikazioa, udalaren eraikinez eta bulegoz egindako jarduera-denbora diagrametan adierazitakoak eta baldintza teknikoen agiriaren 1. Eranskinean azaldutakoak, zehaztuz: lan horien eragiketarik garrantzitsuenak, ordutegiak, txandak, maiztasunak eta lan horiek noiz bukatu behar diren, lanak zelan bete behar diren, lan horien betetzen dituzten langileak, eta bai erabilitako garbigarriak ere, barne Udalarekin eta lokaletako erabiltzaileekin batera egindako garbiketa-zerbitzuak koordinatzeko plana.
- Garbiketa-lanak aurrera eramateko erabiliko dituen lan talde teknikoa eta baliabide materialak. Garbiketa mota guztietan erabiliko diren makinen ezaugarriak zehaztuko dira, eta bai kontratu honen zerbitzuan zehar erabiliko diren produktuen eta kontsumigarrien ezaugarriak ere. Zerbitzua betetzeko horniduraren eta materialen erreserbak ere sartuko dira Planean.
- Giza baliabideak eta koordinazioa: Sartuko dira langileen plana, koordinazio plana, eragiketa guztien etengabeko kontrola berma dezaten eta Udaleko Zerbitzu Teknikoen erabaki egokiak berma ditzaten.
- Garbiketaren kalitaterako Berraztertze Plana, Kontrola eta Ebaluazioa, baldintza teknikoen agirian aipatutako Ikusapena izan dadin, beteak beste, honakoak jasota egonik: aro bakoitzeko garbiketaren maila, maila hori definitzeko erabilitako adierazleak, langileen presentzia kontrolatzeko sistema, eta abar.
- Enpresaren segurtasuna nahiz lan arloko osasuna bermatzeko neurriak betetzeko bermea, prestakuntza-plana, zerbitzuari atxikitako langileen goratzea eta birziklatzea

### **2. Hobekuntza gehigarriak**

Lizitatuzaileak baldintza teknikoen gainean bidezkoztat jotzen dituen hobekuntzak aurkeztu ahal izango ditu.

Lizitatuzaileak hobetu ahal izango du baldintza teknikoen agirian adierazitakoa, aurkezten, adibidez, produktu ekologikoen erabilera eta aurrezki energetikorako ekipoak erabiltzea, garbigarrien eta desinfekzio-produktuen hobekuntza, garbiketaren mekanizazioa proposatzea baldin eta zerbitzua hobetzen badu eta aurrezki ekonomikoa badago, alfonbrak sarrera segurtasunerako euria dagoen egunetan (edo behégaina babesteko eta horren bizitza luzatzeko eta tratamendua) , eta bai zerbitzuaren onurako diren beste hobekuntza batzuk.





## **DERIOKO UDALA**

Baldintza-agiriko gutxieneko baldintzei buruz proposatutakoak gain kosturik gabekoak izango dira eta kontratuaren xedearekin zuzenean lotuta egon beharko dira. Proposatuko diren hobekuntza-eragiketa bakoitzaren memoria azalgarria aurkeztuko da, horrek beharreko xehetasuna izango du bere irismena eta hedadura ulertzeko, halaber, epea edo egutegia zehatz-mehatz azalduta aurkeztuko da, eta bestelako inguruabarrak ere hori kontuan hartzeko, aztertzeko eta baloratzeko.

Pleguan eskatutako kontzeptuen inguruko proposamenak ez dira balioetsiko, nahiz eta hobekuntza moduan aurkeztu.

- C) **C kartazala**, balorazio automatikoa izango duen dokumentazioa. Honako dokumentazioa izango du

### **1. Eskaintza ekonomikoa**

Aurrekontu osoan dauden oinarrizko prezioak eta prezioak deskonposatuta idatziko dira.

**2. Prezio unitarioak.** Lizitatzailleak 4. eranskinean jasotako unitateko prezioei bajaren ehunekoa eskainiko du.

Eskulangatik unitateko prezioei bajaren ehuneko bat aipatu beharko da, eta beste ehuneko bat makinagatik eta garbigarriengatik unitateko prezioei.

Dokumentazio honek kontratu izaera izango du, eta hori ez betetzeak dagokion zigorra ekarriko du.

Lizitatzaille bakoitzak proposamen bakarra aurkeztuko du. Halaber, ezingo du enpresen aldi baterako elkarten bidez eskaintzarik aurkeztu, bakarrik zein aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan parte hartu badu.

### **11. Klausula.- Kontratazio Mahaia**

Kontratazio Mahaiko burua korporazioko kide bat edo bertako funtzionario bat izango da, eta korporazioaren funtzionario batek jardungo du idazkari gisa, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21.2 artikulua inguruan (horren bidez zati batean garatu zen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, hain zuzen ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testuategina onetsi zuena) azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onesten duen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testuateginak bigarren xedapen gehigarriaren 10. puntuan ezarritakoarekin bat etorriz. Gutxienez lau kide egongo dira; horietako bat idazkaria izango da edo, bestela, aholkulari juridikoaren egitekoak eman zaizkion titularrak; beste kide bat idazkari-kontu hartzaillea izango da; eta kontratazio-mahaia beste kide batzuk izendatuko ditu Korporazioaren zerbitzura dauden karrerako



## **DERIOKO UDALA**

funtzionarioen edo langile lan-kontratadunen artean, edo korporazioko kide hautetsien artean.

Honako kide hauek osatuko dute Kontratazio Mahaia:

### **Mahaiburua:**

Titularra: Esther Apraiz Fernández la Peña, Derioko Udaleko alkate-udalburua

Ordezkoa: Iker Iturrate Ibarra, Derioko Udaleko zinegotzia

### **Mahaikideak:**

1.- Nekane Aiarza Zallo, Derioko Udaleko zinegotzia

2.- José Angel Aurrekoetxea Aperribai, Derioko Udaleko zinegotzia

3.- Alpiniano Gonzalez Gomez, Derioko Udaleko zinegotzia

3.- Obra eta zerbitzuen arloko teknikari bat

Ordezkoa: obra eta zerbitzuen arloko teknikari bat

4.- Udaleko kontu-hartzailea

Ordezkoa: udal-langile bat

5.- Titularra: idazkaria

Ordezkoak: udal-funtzionario bat

### **Idazkaritza:**

Titularra: udal-funtzionario bat

Ordezkoak: udal-funtzionario bat

## **12. klausula- Adjudikatzeko irizpideak**

Adjudikazio-irizpide batzuk kontuan hartuko dira proposamenak eta abantailarik handiena duten eskaintzak baloratzeko, lizitazio honen Ezaugarri koadroan adierazita daudenaren arabera:

<b>IRIZPIDEAK</b>	<b>PUNTUAZIÓA</b>	<b>MODUA</b>
<b>Eskaintako proiektu teknikoaren kalitatea</b>	<b>30 puntu</b>	Balio-judizioa



## **DERIOKO UDALA**

<b>Hobekuntza gehigarriak</b>	<b>10 puntu</b>	
<b>Eskaintza ekonomikoa</b>	<b>50 puntu</b>	Formula
<b>Prezio unitarioak</b>	<b>10 puntu</b>	

### **BALIO-IRIZPENAREN BIDEZ EBALUATUKO DIREN IRIZPIDEAK: Gehienez 40 puntu**

#### **1. Eskaintako proiektu teknikoaren kalitatea (B kartazala)..... gehienez 30 puntu**

Lizitatuzaileak proiektu tekniko bat aurkeztu du, eta horretan guztienez honakoak sartuko dira.

- Lanen planifikazioa, udalaren eraikinez eta bulegoz egindako jarduera-denbora diagrametan adierazitakoak eta baldintza teknikoen agiriaren 1. Eranskinean azaldutakoak, zehaztuz: lan horien eragiketarik garrantzitsuenak, ordutegiak, txandak, maiztasunak eta lan horiek noiz bukatu behar diren, lanak zelan bete behar diren, lan horien betetzen dituzten langileak, eta bai erabilitako garbigarriak ere, barne Udalarekin eta lokaletako erabiltzaileekin batera egindako garbiketa-zerbitzuak koordinatzeko plana.

- Garbiketa-lanak aurrera eramateko erabiliko dituen lan talde teknikoa eta baliabide materialak. Garbiketa mota guztietan erabiliko diren makinak ezaugarriak zehaztuko dira, eta bai kontratu honen zerbitzuan zehar erabiliko diren produktuen eta kontsumigarrien ezaugarriak ere. Baita horniduraren eta materialen erreserba plana ere sartuko da, zerbitzua aurrera eramateko beharreko materia eta hornidurak eten gabe erabilgarri edukitzeko.

- Giza baliabideak eta koordinazioa: Sartuko dira langileen plana, koordinazio plana, eragiketa guztien etengabeko kontrola berma dezaten eta Udaleko Zerbitzu Teknikoen erabaki egokiak berma ditzaten.

Garbiketaren kalitaterako Berraztertze Plana, Kontrola eta Ebaluazioa, baldintza teknikoen agirian aipatutako Ikuskapena izan dadin, beteak beste, honakoak jasota egonik: aro bakoitzeko garbiketaren maila, maila hori definitzeko erabilitako adierazleak, langileen presentzia kontrolatzeko sistema, eta abar.

- Enpresaren segurtasuna nahiz lan arloko osasuna bermatzeko neurriak betetzeko bermea, prestakuntza-plana, zerbitzuari atxikitako langileen goratzea eta birziklatzea

Dena den, lizitatuzaileek aurkeztutako lanen memoria teknikoa da onartutzat hartuko Administrazioak ebatzi arte, hau da, kontratazio programa formulatzeko epe barruan lan



## **DERIOKO UDALA**

programa ebazten duenean Administrazioak. Ebazpen horrek ekarri ahal izango ditu: aldaketak sartzea programari edo preskripzio batzuk betetzea programan, betiere, kontratuaren klausulei aurka ez bazaie egiten.

### **2. Hobekuntza gehigarriak (B kartazala) ..... gehienez 10 puntu**

Lizitatuzaileak baldintza teknikoan gainean bidezkozat jotzen dituen hobekuntzak aurkeztu ahal izango ditu.

Lizitatuzaileak hobetu ahal izango du baldintza teknikoan agirian adierazitakoa, aurkezten, adibidez, produktu ekologikoen erabilera eta aurrezki energetikorako ekipoak erabiltzea, garbigarrien eta desinfekzio-produktuen hobekuntza, garbiketaren mekanizazioa proposatzea baldin eta zerbitzua hobetzen badu eta aurrezki ekonomikoa badago, alfonbrak sarrera segurtasunerako euria dagoen egunetan (edo behegaina babesteko eta horren bizitza luzatzeko eta tratamendua) , eta bai zerbitzuaren onurako diren beste hobekuntza batzuk.

Baldintza-agiriko gutxieneko baldintzei buruz proposatutakoak gain kosturik gabekoak izango dira eta kontratuaren xedearekin zuzenean lotuta egon beharko dira. Proposatuko diren hobekuntza-eragiketa bakoitzaren memoria azalgarria aurkeztuko da, horrek beharreko xehetasuna izango du bere irismena eta hedadura ulertzeko, halaber, epea edo egutegia zehatz-mehatz azalduta aurkeztuko da, eta bestelako inguruabarrak ere hori kontuan hartzeko, aztertzeko eta baloratzeko.

Pleguan eskatutako kontzeptuen inguruko proposamenak ez dira balioetsiko, nahiz eta hobekuntza moduan aurkeztu.

### **AUTOMATIKOKI EBALUATUKO DIREN IRIZPIDEAK: Gehienez 60 puntu**

#### **3. Eskaintza ekonomikoa (C kartazala) .....gehienez 50 puntu**

Eskaintza ekonomikoa balioesteko, honako formula hau erabiliko da:

Eskaintzarik ekonomikorik onena

50 x -----

Balioetsi behar den eskaintza



## **DERIOKO UDALA**

### **4. Prezio unitarioak (C kartazala).....gehienez 10 puntu**

Lizitatzailleak 4. eranskinean jasotako unitateko prezioei bajaren ehunekoa eskainiko du.

10 puntuetatik 5 puntu izango dira eskulangatik unitateko prezioei bajaren ehunekoarentzat, eta beste 5 puntu izango dira bat makinagatik eta garbigarriengatik unitateko prezioei bajaren ehunekorentzat .

Puntuaziorik handiena lortuko du preziorik txikiena duen eskaintzak, abantailena delako Udalarentzat, eta gainontzeko puntuazioak kalkulatu dira aztertuz.

### **13. klausula- Proposamenen irekidura**

Kontratazio Mahaiak, horretarako zehaztutako astegunean, ekitaldi pribatua egin eta A kartazalak irekiko ditu, bertan aurkeztutako administrazio-agiriak kalifikatu ahal izateko.

Beharrezkoa bada, Mahaiak gehienez ere hiru eguneko epea emango du, lizitatzailleak aurkeztutako dokumentazioan atzeman diren eta konpon daitezkeen akatsak edo hutsegiteak zuzen ditzan.

B kartazalak ekitaldi publikoan irekiko dira, eta lizitatzailleei telefono, fax edo posta elektronikoki bidez emango zaie hitzordua, gutun-azal horiek aztertzeko. Gutun-azal horietan daude, hain zuzen, balio judizioen arabera hazta daitezkeen irizpideak.

Proposamenak irakurritakoan, Mahaiak egokitzen jotzen dituen txosten teknikoak eskatuko ditu horiek balioesteko, plegu honetan ezarritako irizpideekin eta haztapenekin bat etorrituz.

Kontratazio Mahaia berriz ere bilduko da, eta balio judizioaren menpe dauden irizpideei esleitutako haztapenaren berri emango zaie. Jarraian, C gutun-azalak irekiko dira.

Balio judizioaren menpe dauden haztapen irizpideen balioespena (B gutun-azalak) eta automatikoki hazta daitezkeen (C kartazalak) balioespena ikusita, Kontratazio Mahaiak proposatuko du kontratuaren esleipenduna.

### **14. klausula- Dokumentazioaren errekerimendua**

Kontratazio organoak eskaintza ekonomikorik onena egin duen lizitatzaileri eskatuko dio, bost egun balioduneko epean, eskakizuna jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, honako ziurtagiri hauek aurkezteko:



## **DERIOKO UDALA**

### 1. Ekonomia Jardueren gaineko Zergari dagokionez:

Esleipendun gisa proposatutako enpresa JEZren subjektu pasiboa denean eta zerga hori ordaintzeko betebeharra duenean, indarrean dagoen ekitaldian zergan alta eman izanaren agiria aurkeztu beharko du, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, edo, bestela, zergaren azken ordainagiria. Agiri horrekin batera, erantzukizun-aitorpena aurkeztuko da, zergaren matrikulan baja eman ez dela egiaztatzeko.

Proposatutako enpresa martxoaren 17ko 2/1992 Foru Dekretuak bere 5. artikulua 1. atalean ezartzen duen salbuespen-egoeraren batean badago (Dekretu horren bidez onetsi zen ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren testu bategina, Ekonomia Jardueren gaineko Zergari buruzkoa), legezko salbuespen-egoera zein den adierazten duen erantzukizun-aitorpena eta aitortenaren agiria aurkeztuko ditu zerga-betebeharren erroldan.

### 2. Gainontzeko zerga-betebeharrei eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrei dagokienez:

- a) Zergen Administrazioako Estatuko Agentziak eta/edo Foru Ogasunak emandako aldeko ziurtagiria, adierazten duena enpresak zerga-betebeharrak egunean dituela eta Estatuarekin zergazko zorrik ez duela..
- b) Gizarte Segurantzako Diruzaintzak emandako aldeko ziurtagiria, adierazten duena enpresak egunean dituela Gizarte Segurantzako betebeharrak.
- c) Derioko Udalak ofizioz egiaztatuko du enpresak egunean dituela Udalarekiko zerga-betebeharrak

### 3. Halaber, eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailerak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- Kontratua gauzatzeko hitzeman dituen baliabideak egiazki dituela egiaztatzen duten agiriak.
- Behin betiko bermea eratu duela egiaztatzen duen agiria, 15. klausulan ezarritakoarekin bat etorritik.

Zehaztutako epean eskatzen diren agirien inguruko betekizuna behar bezala betetzen ez bada, ulertuko da enpresa lizitatzailerak baztertu egin duela bere eskaintza. Kasu horretan, eskaintzak sailkatu diren ordenaren arabera, hurrengo enpresa lizitatzailerari eskatuko zaizkio agiri horiek. Halaber, dolu, erru edo zabarkeria kasuetan, hori gertatzen bada, ezingo du kontraturik egin.



## **DERIOKO UDALA**

### **15. klausula- Behin betiko bermea**

Eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkezten duen lizitatzailleak egiaztatu egin beharko du esleipenaren zenbatekoaren %5eko bermea eratu duela, Balio Erantsiaren gaineko Zerga alde batera utzita.

Bermea honako modu hauetan era daiteke:

- a. Eskudirutan edo Zor Publikoko balioetan; kasuan kasu, Legea garatzeko arauetan ezarritako baldintzei jarraituko zaie. Eskudirua eta balioak ibilgetzeko balioak Udal Diruzaintzan jarriko dira, Lege hau garatzen duten arauak ezartzen duten eran eta baldintzetan.
- b. Abal baten bidez; Espainian jarduteko baimena duen banku, aurrezki-kutxa, kreditu-kooperatiba, kreditu-establezimendu finantzario edota elkarrekiko berme-baltzuren batek eman dezake, Lege hau garatzen duten arauak ezartzen duten eran eta baldintzetan. Aurreko a) hizkian adierazitako establezimenduetan jarri beharko da.
- c. Kauzio-aseguru baten kontratuaren bidez; Lege hau garatzen duten arauak ezartzen duten eran eta baldintzetan egin behar da, eremu horretan jarduteko baimena duen erakunde aseguratzailer batekin. Aseguruaren ziurtagiria aurreko a) hizkian adierazitako establezimenduetan aurkeztu beharko da.

Aipatutako abalak eta aseguruaren kontratuak behar bezala askietsi behar dira (Herri Administrazioetako Kontratuei buruzko Legearen araudi orokorra onesten duen abenduaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 58. art.).

Ez da bermea itzuli edo ezeztatuko berme-aldia amaitu eta kontratua behar bezala bete arte.

Berme horrek erantzun egingo die SPKLTBren 100. artikuluan jasotako kontzeptuei.

### **16. klausula – Uko egitea eta gutxiestea**

Kontratazio organoak uko egin diezaioke esleitu aurretik kontratua egiteari, baldin eta behar bezala justifikatutako arrazoiak badaude eta alde aurretik lizitatzailleei horren berri ematen bazaie. Halaber, esleitu aurretik uko egiteko eskubidea izango du, kontratua prestatzeko edo esleitzeko prozedurako araudia bete ez bada eta arau-hauste hori konpondu ezin bada, bat etorritik Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina (SPKLTB) onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 155. artikuluan xedatutakoarekin.



## **DERIOKO UDALA**

### **17. klausula – Balio anormalak edo neurritz kanpokoak dituzten eskaintzak (SPKLTBko 152. artikulua)**

Eskaintza ekonomikoak ohiz kanpoko edo neurritz kanpoko baloreak dituela ulertuko da, baldin eta lizitatzailleak aurkeztutako oinarrizko aurrekontuak lizitazio-prezioarekiko % 15etik gorako jaitsiera badu.

### **18. klausula – Kontratua adjudikatzea**

Kontratazio organoak hogeitun lanegun izango ditu kontratua esleitzeko, eskatutako dokumentazioa jasotzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

Pleguan jasotako irizpideei jarraikiz eskaintza edo proposamenen bat onargarria bada, ezingo da lizitazioa hutsik geratu.

Esleipena arrazoitua izango da, eta hautagai edo lizitatzaillei jakinarazten zaien une berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

### **19. klausula – Kontratua formalizatzea eta hobetzea**

Kontratazio organoak enpresa esleipendunari eskatuko dio kontratua formalizatu dezala, gehenez ere bost eguneko epean, eskakizuna jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, eta kontratazio arloko helegite berezia jartzeko 15 eguneko epea amaitutakoan.

Kontratugileak eskatu ahal izango du kontratua eskritura publikoan egitea, eta bere gain hartuko ditu dagozkion gastuak.

### **20. klausula – Dokumentazioa bueltatzea**

Kontratua formalizatu ondoren eta behin errekurtsoak aurkezteko epea igarota, horrelakorik aurkeztu ez bada, proposamenekin batera aurkeztutako agiriak enpresa lizitatzaillearen esku geratuko dira.

Lizitatzailleek ez badituzte aipatu agiriak hartzen, suntsitu egingo dira, kontratua formalizatzen denetik urtebete igarotakoan, betiere kontratua tinkoa bada eta helegiterik ez badago edo, baldin badaude, behin betiko ebatzi badira.

## **III. KONTRATUA GAUZATZEARI BURUZKO XEDAPENAK**





## **DERIOKO UDALA**

### **21. klausula – Zerbitzuak gauzatzea eta berraztertzea**

Kontratua baldintzen pleguan ezarritakoari jarraikiz gauzatuko da, eta bat etorriko da kontratua interpretatzeko kontratazio organoak kontratugileari emango dizkion argibideekin.

### **22. klausula – Kontratua gauzatzean kontrola**

Administrazioak ikuskatu, egiaztatu eta zaindu egingo du, kontratua behar bezala gauzatu dadin, eta kontratugileari jarraibideak emango dizkio, kontratua behar bezala betetze aldera.

### **23. klausula – Lan programa**

E Kontratugileak lanerako benetako programa aurkeztu beharko du, eta bertan, data zehatzak jasoko ditu, lanak hasteko eta gauzatzeko datetatik hasita (B gutun-azalean, aldiz, lan-programa teorikoa aurkeztu behar zen). Hori guztia kontratazio organoak onetsi beharko du.

### **24. klausula – Kontratuaren erantzulea**

Derioko Udalak kontratuaren arduradun bat izendatu dezake, eta pertsona horrek, oro har, kontratua nola gauzatzen den ikuskatzeaz gain, egiteko espezifiko batzuk ere izango ditu, hain zuzen ere, zerbitzuaren ezaugarriak kontuan hartuta, emango zaizkion egitekoak. Horrela, kontratua gauzatzerakoan sor daitezkeen gorabeheren ondoriozko karga administratibo eta tekniko murriztuko da eta kontratuan parte hartzen duten eragileek koordinatuta dihardutela bermatuko da.

Egiteko horien artean dago kontratuaren urteko azken ebaluazio-txostenak ematea; txosten horietan jasoko dira kontratuaren gauzatzeari buruzko alderdiak eta, zehazki, diseinuaren egokitasunarekin, kontratuan aurreikusitako helburuekin eta lortutako azken emaitzekin lotutako alderdiak, baita arlo ekonomikoari, aurrekontuari eta arlo teknikoari dagozkien alderdiak ere.

Egiteko horiek zuzenean egin daitezke, edo kontratuaren exekuzioaren jarraipena behar bezala egiteko beharrezkoak diren lan teknikoak egingo dituen enpresa bat kontratatuta, pleguetan ezarritakoari jarraikiz.



## **DERIOKO UDALA**

### **25. klausula – Gorabeheren ebazpena**

Kontratua gauzaterakoan administrazioaren eta kontratugilearen artean sor daitezkeen gorabeherak (hitzartutakoa berdin interpretatu ez delako edo kontratuaren baldintzak aldatu behar direlako) aurkarazteko espediente bidez izapidetuko dira, eta agiri horretan jaso behar dira urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onesten duen Herri Administrazioetako Kontratuei buruzko Legearen araudi orokorrak 97. artikuluan zehaztutako jarduketak.

Aurkarazteko espedientea izapidetzeak ez du kontratua etenaraziko, betiere interes publikoko arrazoiek etetea justifikatzen ez badute edo gorabeheren izaerak etetea eskatzen ez badu.

## **IV. ALDE BIEN ESKUBIDE ETA BETEKIZUNEI BURUZKO XEDAPENAK**

### **26. klausula – Kontratista den enpresari ordainak**

Kontratugileari faktura aurkeztu ondoren ordainduko zaio (faktura indarrean dagoen araudiaren arabera egingo da), Sektore Publiko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina (SPKLTB) onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak bere 216. artikuluan ezartzen dituen epe eta baldintzetan.

Halaber, fakturazioa hilabete bakoitza amaitutakoan egingo da, fakturak egite aldera Udaleko zerbitzuek enpresa esleipendunari emandako jarraibideen arabera.

Fakturarekin batera, Gizarte Segurantzako Diruzaintzaren ziurtagiria aurkeztuko da, frogatzeko enpresak egunean dituela Gizarte Segurantzako kuotak, baita TC2 delako agiria ere, kotizazioaren eta zentroko langileen berri izateko.

Kalitate-maila betetzen ez denean, Udalak eskubidea du hileko fakturetatik dagokion zenbatekoa deskontatzeko (baldintza teknikoen pleguaren 5.7. artikulua). Edonola ere, kalitate-kontrolari dagokionez, preskripzio teknikoen pleguan ezarritako mekanismoak erabiliko dira, eta kontratua betetzen ez den kasuetarako plegu honetan jasotako zigorrak aplikatuko dira.

% 7a gainditzen duten aparteko zerbitzuak ez dira hor sartuko.

Ez dira aparteko zerbitzutzat hartuko ekitaldien, jaien eta ospakizunen urteko egutegian programatutako ekintzen ondorioz eman beharreko zerbitzuak.

Ekintzaileei laguntzeko neurriei, hazkundea suspertzeari eta enplegua sortzeari buruzko uztailaren 26ko 11/2013 Legearen hogeita hamahirugarren xedapen gehigarriaren



## **DERIOKO UDALA**

arabera, kontratugileak eman dituen zerbitzuei edo ondasunei dagokien faktura aurkeztu beharko du erregistroan, faktura hori izapidetzea dagokion administrazio-organo edo unitateari igorri ahal izateko.

Emandako zerbitzuei dagozkien, fakturak Derioko udaletxeko erregistroan aurkeztuko dira (posta arruntez edo aurrez aurre). Faktura bakoitzean ondorengo datuak agertu behar dira, behar bezala identifikatuta:

- Izapidetzea dagokion organoa: Alkatetza, Derioko Udaleko Obrak, Hirigintza, Zerbitzuak eta Etxebizitza Sailaren bitartez.
- Kontabilitate publikoaren arloan eskumenak dituen administrazio-organoa: Kontuhartzaitza.
- Kontratazio organoa: Alkatetza.
- Faktura onesteko eskumenak dituen organoa: Alkatetza edo Tokiko Gobernu Batzordea, zenbatekoaren arabera.
- Hartzailea: Derioko Udala, Herriko plaza 3, 48160 Derio, Bizkaia.

### **27. klausula – Esleipendunaren eskubideak eta betekizunak**

Kontratua klausuletan eta pleguetan ezarritakoari jarraikiz gauzatuko da, eta bat etorriko da kontratua interpretatzeko kontratazio organoak kontratugileari emango dizkion argibideekin.

Kontratugilea izango da garatuko dituen lanen eta emandako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule, baita kontratua gauzatzean izandako hutsak, akatsak, metodo desegokiak zein amaiera okerrak direla-eta administrazioari zein hirugarrenei sortutako ondorioen erantzule ere.

Halaber, hauek ere kontratugilearen betebeharrak espezifikatu dira:

- Kontratugileak behar beste giza baliabide edo baliabide material erabili edo atxikiko ditu kontratua gauzatzeko (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 64.2 artikulua).
- Azpikontratazio kasuetan, kontratugileak bete egin behar ditu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen (SPKL) testu bategina onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 227. artikuluan aurreikusitako betekizunak.
- Kontratugilea behartuta dago lan, Gizarte Segurantzza eta laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden xedapenak betetzera.
- Kontratugileak, zerbitzuaren prestazioak gauzatzekoan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen duten neurriak aplikatu behar ditu.



## **DERIOKO UDALA**

- Kontratugileak bermatu egingo du kontratua gauzatzeko erabilitako publizitateak, irudiek edo materialek ez dutela hizkuntza sexista erabiltzen, eta saihestu egingo dira emakumeak diskriminatzen dituzten irudiak edo estereotipo sexistak; berdintasun-balioak, gizonen eta emakumeen presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna eta rol- nahiz genero identitate-aniztasuna bultzatuko dira.

- Kontratugileak printzipio eta betebeharrak jakin batzuk bete beharko ditu, hain zuzen ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak ezartzen dituztenak.

- Kontratua egiten duen enpresak euskara erabili dezake, kontratu honen xedea gauzatzeagatik administrazioarekin harremanetan dagoenean.

Derioko Udalaren eraikinak eta bulegoak barrutik garbitzeko zerbitzua Udaleko Zerbitzu Teknikoaren bidez kudeatuko da, eta kontratuen esleipendunari dagokio honako hauek betetzea:

- Bere gain hartuko ditu zerbitzuak emateko erabili diren materialak mantentzeko eta konpontzeko gastuak.

- Horrez gain, erabilitako ibilgailuen eta makinaren erantzukizun zibileko aseguru-primak ordainduko ditu, eta polizaren eta ordainagiriaren kopia aurkeztu beharko ditu, 15 eguneko epean, kontratua formalizatzen denetik zenbatzen hasita. Erantzukizun zibileko estaldura 2.000.000 eurokoa izango da, gutxienez.

- Erabiltzaileak izan daitezkeenei zerbitzua abiarazi dela jakinarazteak dakartzan gastuak, eta gerora egingo diren informazio-kanpainen gastuak.

- Kontratazioaren eta zerbitzua ematearen ondorioz edo deskribatutako zerbitzuekin lotuta dauden jardueren ondorioz ordaindu beharreko zergak edo gainordainak..

- Kontratuak iraun bitartean eskuratzen dituen datu pertsonalei dagokienez, kontratugileak Datu Pertsonalen gaineko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta berau garatzen duen araudiak agintzen duten guztia bete behar du.

- Beharrezkotzat jotzen baditu, Udalak uneoro eskatu ahal dizkio enpresa esleipendunari emakidarekin lotutako agiriak, zerga, lan eta administrazio-arloan enpresa guztiz legezkoa dela egiaztatzeari begira.

- Zerbitzuen enpresa esleipendunak bere gain hartuko du zerbitzuetan erabilitako langileek, ibilgailuek eta lan-tresnek eragindako istripuengatik kalte-galeren indemnitazio zibil oro. Nolanahi ere, bermatu egingo da egileen edo arriskuak aseguratzeko dituzten konpainien aurrean duen eskubidea.



## **DERIOKO UDALA**

- Enpresa esleipenduna izango da arduradun zibila eta administratiboa, bere langile eta enplegatuek egiten dituzten hutsegiteak direla eta. Zerbitzuak gaizki emateagatik, zabarkeriagatik edo bere erruz hirugarrenei eragindako kalteak (izan ondasunei, pertsoneri, instalazio partikularrei zein Udalari) ordaindu behar ditu. Halaber, kontratuari jarraikiz bestelako zehapenak ezarri ahal izango dira.
- Halabeharrezko kasuetan edo larrialdi publikoko egoeretan, normaltasunera itzultzeko langileak edo materiala beharrezkoak direnean, enpresa esleipendunak Udalak agindutakoa bete beharko du kontratatutako zerbitzuak emateko edo beste egiteko batzuk gauzatzeko, larrialdi egoerak, halabeharrezko gertaerak edo zoritxar publikoak iraun bitartean.
- Enpresa esleipendunak saihestu egingo du ingurumen atmosferikoa, baliabide naturalak eta zerbitzuak gauzatzeagatik kaltetua izan daitekeen beste edozein ondasun kutsatzea. Kutsadura ekiditeko, zuzendaritzaren aginduak beteko dira.
- Zerbitzua txukun emateaz eta udal-ondarea zaintzeaz arduratzea. Horretarako, jarraibideak eman ahal izango ditu. Dena den, horrek ez du eraginik izango poliziak administrazioari emandako ahalmenetan.
- Esleipendunak ez du administrazioak emandako informazioa emango eta ez ditu administrazioak emandako azterlanak, agiriak eta datuak erabiliko edo zabalduko, plegu honetan aurreikusita ez dagoen erabilera baterako. Zehazki, ezingo dizkie agirien edo datuen kopia hirugarrenei eman, Derioko Udalak idatziz baimena ematen ez badio.

Kontratu hau gauzatzerakoan egindako azterlan eta bestelako agiriak Derioko Udalarenak izango dira; horrek erreproduzitzeko, argitaratzeko eta zabaltzeko eskubidea izango du (guztiz edo zati batean), eta esleipendunak eta lanen egileek ezingo dute horren aurka agertu.

Enpresa esleipendunak onartu egiten du eragiketa hauetan bildutako informazioa estatistika-sekretuaren menpe dagoela eta, ondorioz, onartu egingo ditu horrek tartean dauden langileentzako dakartzan betebeharrak ere.

### **28. klausula – Konfidentzialtasuna**

Kontratu honetatik eratorritako prestazioak gauzatzerakoan jaso edo eskuratu diren agiriak eta informazioa datu pertsonalen fitxategiaren arduraduna den eta kontratua egin duen administrazioaren esku daude eta konfidentzialak dira; beraz, ezingo dira komunikabideetan edo edozein motatako euskarritan erreproduzitu (ez osorik, ezta zati bat ere). Horrenbestez, ezingo dira informatikoki tratatu edo editatu, ezta hirugarrenei bidali ere, kontratuaren exekuzio-eremu zuzenetik kanpo. Kontratua amaitutakoan, datu horiek Udalari itzuliko zaizkio eta/edo suntsitu egingo dira.



## **DERIOKO UDALA**

### **29. klausula – Arau-hausteak sailkatzea**

Esleipendunak zerbitzuak ematerakoan egin ditzakeen arau-hausteak arin, larri eta oso larri bezala kalifikatuko dira. Arau-hauste batzuk plegu honetan jasota daude eta, beste batzuk, beheko koadroan daude tipifikatuta eta zehaztuta

#### 1. Arau-hauste arinak

- 1.1. Aurreikusitako zerbitzuetan aldaketak egitea.
- 1.2. Zerbitzua kaltetu dezakeen jarduketa oro.
- 1.3. Kontratuan zehaztutako prestazioen zati bat ez gauzatzea, baldin eta bada arau-hauste larritzat jotzeko bezain lana
- 1.4. Bestelako arau-hausteak, lan-arriskuak prebenitzeko araudiak eskatzen dituen betebeharrak formalekin edo agiriarekin zerikusia dutenak, baldin eta ez badaude larri edo oso larritzat tipifikatuta.
- 1.5. Baldintza teknikoaren pleguko 4.7 artikuluan zerrendatutako edozein huts, baldin eta arau-hauste arintzat tipifikatuta badago..

#### 2. Arau-hauste larriak:

- 2.1. Justifikatu gabe eta alde aurretik jakinarazi gabe zerbitzu bat aldatzea.
- 2.2. Esleipendunak eskaini ez duen ekipo bat erabiltzea.
- 2.3. Zerbitzuen xehetasunak aldatzearen inguruan Udalak emandako ebazpenak edo erabakiak ez betetzea, betiere esleipendunari gasturik eragiten ez dioten kasuetan.
- 2.4. Zerbitzuak ematerakoan behin eta berriro atzeratzea (Udalak hiru ohartarazpen baino gehiago egiten baditu).
- 2.5. Hiru arau-hauste arin egitea.
- 2.6. Zerbitzuen prestazioaren hasiera egun bat baino gehiago atzeratzea, betiere ez badago atzerapen hori eragin duen ezinbesteko arrazoirik.
- 2.7. Administrazioaren errekerimenduei kasurik ez egitea edo horiek ez betetzea.
- 2.8. Kontratugilearen eskaintzan aurreikusi ez diren lan-sistemak edo langileak erabiltzea.



## **DERIOKO UDALA**

- 2.9. Plegu honetan eta kontratua gauzatzeko bestelako xedapenetan ezarritako eskakizun formalak ez betetzea..
- 2.10. Lan-arriskuak prebenitzeko araudi orokorrean jasotako betebeharrak ez betetzea, baldin eta arau-hauste hori ez bada oso larritzat jotzeko bezain larria.
- 2.11. Baldintza teknikoen pleguko 4.7 artikuluan zerrendatutako edozein huts, baldin eta arau-hauste larritzat tipifikatuta badago
- 2.12. Arau-hauste arinak behin eta berriro egitea.

### 3.-Arau-hauste oso larriak:

- Zerbitzuen prestazioaren hasiera egun bi baino gehiago atzeratzea, betiere ez badago atzerapen hori eragin duen ezinbesteko arrazoirik.

-Zerbitzua emateari dagokionez Udalak idatziz emandako aginduak behin eta berriro ez betetzea. Behin eta berriro ez betetzeak hiru agindu edo gehiago ez betetzea esan nahi du.

-Zerbitzuei atxikitako langileek ez betetzea lan-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta laneko segurtasun eta higiene arlokoak.

-Zerbitzuak gelditzea edo etetea.

-Aseguru-polizari ez edukitzea edo estaldura nahikoa ez izatea, zerbitzuen emakida arautzen duen baldintzen pleguan aipatutako arriskuei eta esleipendunaren erantzukizunei aurre egiteko.

-Hiru arau-hauste larri egitea.

-Egiaztatutako atzerapen sistematikoak zerbitzuen emakidan (Udalak idatziz sei ohartarazpen edo gehiago igortzen baditu).

-Zerbitzuak emateko moduan iruzur egitea.

-Prestazioen exekuzioa hasteko epea ez betetzea.

-Kontratuan zehaztutako prestazioen zati bat ez gauzatzea, baldin eta horrek kalte oso larriak eragiten baditu.

-Kontratugileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratu honen xede diren prestazioak guztiz gelditzea.

-Administrazioaren errekerimenduei kasurik ez egitea edo horiek ez betetzea, baldin eta horrek kontratuaren exekuzioan kalte oso larriak eragiten baditu.



## **DERIOKO UDALA**

-Pleguetan nahiz kontratugilearen eskaintzetan aurreikusi ez diren lan-sistemak edo langileak erabiltzea, baldin eta horrek kontratuaren exekuzioan kalte oso larriak eragiten baditu.

-Kontratugileak kobratze agirian prestazioak faltsutzea.

-Zerbitzuaren erabiltzaileei ahoz nahiz ekintzen bidez begirunea galtzea.

-Azpikontratatzearekin lotutako preskripzioak modu oso larrian ez betetzea, hala badagokio.

-Baldintza teknikoen pleguko 4.7 artikuluan zerrendatutako edozein huts, baldin eta arau-hauste oso larritzat tipifikatuta badago.

-Arau-hauste larriak behin eta berriro egitea.

### **30. klausula – Zigorak ez betetzeagatik**

Arauk bete ez arren, kontratuak indarrean jarraitzen badu, kalte-galeren ordaina alde batera utzita, Derioko Udalak zehapen hauek jarri ahalko ditu, kaltearen larritasuna, arriskua eta zenbat aldiz egin den kontuan hartuta:

- Huts oso larriak: gehienez ere esleipenaren zenbatekoaren % 10, hala badagokio.

- Arau-hauste larriak: gehienez ere esleipenaren zenbatekoaren % 5.

- Arau-hauste arinak: gehienez ere esleipenaren zenbatekoaren % 3.

Zigorak kontratazio organoak erabakiko ditu, kontratuaren arduradunak proposatuta, halakorik izendatu bada. Zigorren zenbatekoak kendu egingo zaizkie kontratugileari ordaindu beharreko kopuruei, ordainketa oso edo zati gisa. Bestela, hala badagokio eta bermea eratu bada, bermeari kenduko zaio, aipatu fakturei kendu ezin bazaie.

### **31. klausula – Aurreko espedientea**

Arau-hausteengatik zehapenak jarri aurretik espedientea izapidetuko da; espediente hori Udaleko zerbitzuek proposatuta sartuko da eta zerbitzuaren zinegotzi eskuordetuak egingo du, bere kabuz edo erabiltzaileek jarritako salaketen ondorioz. Espedientearen bitartez, esleipendunari entzunaldia emango zaio, gertakariak justifikatzeko beharrezko informazioa eman eta frogak egingo dira eta Prozedura Administratiboaren araudiak eta aplikatu daitezkeen gainerako xedapenek ezartzen dituzten berme juridiko eta administratiboak aztertuko dira.

Zehapena jarritakoan, esleipendunak zenbatekoa ordaintzen ez badu, Udalak hileru egingo duen edozein ordainketatik kendu ahal izango du.





## **DEGIKO UDALA**

Zehapenak kontratua deuseztatu behar dela badio, kontratuaren fidantza galdu egingo da eta esleipendunak ez du kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik izango.

### **32. klausula- Administrazioaren eskubideak**

Kontratazio organoak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 210. artikulua zehazten duenarekin bat etorritik, honako eskumen hauek izango ditu:

- a) -Kontratua interpretatzea.
- b) .Kontratua betetzean sor daitezkeen zalantzak argitzea.
- c) Kontratua aldatzea, interes publikoak hala eskatzen badu.
- d) Kontratua deuseztatzeko erabakia hartzea, eta kontratuaren ondorioak zehaztea.

Edozein kasutan, kontratistari entzuteko aukera emango zaio. Horretarako, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 211. artikuluan aurreikusitako izapideei helduko zaie.

## **V. KONTRATUAK LAGATZEARI, AZPIKONTRATATZEARI BURUZ, SUBROGATZEARI ETA KONTRATUEN PREZIOAK BERRAZTERTZEARI BURUZKO XEDAPENAK**

### **33. klausula – Kontratua lagatzea**

Enpresa kontratugileak hirugarren bati laga ahalko dizkio kontratu honen eskubide eta betebeharrak, betiere lagatzailearen ezaugarri tekniko edo pertsonalak ez badira erabakigarriak izan kontratua esleitzeko, eta administrazioak baimena ematen badu. Halaber, bete egin beharko dira Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen (SPKL) testu bategina onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 226. artikulua jasotzen dituen baldintzak.

### **34. klausula - Azpikontratatzea**

Kontratugileak ezin du hirugarrenekin hitzartu kontratu honen zerbitzu-emakida partziala edo osoa.



## **DEGIKO UDALA**

### **35. klausula – langileak subrogatzea**

Zerbitzuen esleipendunak zerbitzuari atxikitako langileekin subrogatuko du indarrean dauden lan-kontratuen enpresa-titulartasuna, eta halaxe jasoko da aurreko kontratugilearen langileak izenpetutako kontratuan (baldintza teknikoaren pleguaren 2, eranskinean dago zerrendatuta).

Subrogatu beharreko langile nahikorik egon ezean, enpresa esleipendunak bere betebeharrak eta plegu honetan zehaztutako beharrianak asebetetzeko beharrezko lan-karga kontratatu, berrantolatu eta birbanatuko du, zerbitzu egokia emate aldera. Langile denak enpresa esleipendunaren menpe egongo dira bakarrik. Beraz, jabe gisa dagozkion eskubide eta betebeharrak izango ditu enpresa horrek, eta lan-arloko nahiz Gizarte Segurantzako betebeharrak guztiak bete beharko ditu bere kargura dituen langileekin. Zerbait handitu edo aldatu aurretik, kontratazio berria formalizatzeko beharra, baldintzak, eta abar agiriaren bidez justifikatu beharko dira. Halaber, Administrazioaren ordezkariak oniritzia eman beharko dio eta kontratazio organoak onetsi beharko du.

Kontratuaren xede diren lanak egiterakoan langileek istripuren bat izan badute edo edozein motatako kalteak jasan badituzte, enpresa esleipendunak indarrean dauden araudietan xedatutakoa bete beharko du, eta bere erantzukizunpean egingo du.

### **36. klausula – Prezioak berraztertzea**

Kontratu honetan preziorik ez da berraztertu behar izango.

## **VI. KONTRATUA ALDATZEARI ETA KONTRATUA ETETEARI BURUZKO XEDAPENAK**

### **37. klausula – Kontratuaren aldatzea**

Kontratuaren esleitu ondoren, Udalak aldaketak egin ahal izango ditu berau osatzen duten elementuetan. Aldaketa horiek nahitaez bete beharreko legezko araudi batetako partidenak izango dira.

Kontratuaren gauzatzean kontratutako zerbitzuen prestazioa aldatu beharko balitz, bajengatik, dagokion akordioa egingo du kontratazio-organok, eta orduen poltsa bat sortuko da. Horiek beste zerbitzu batzuk egiteko baliatuko dira, baldin eta Udalak onartzen baditu, edo kaltetutako azaleraren proportzionala den deskontu ekonomikoa egingo da.

Kontratuaren aldaketa azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritako araudiaren arabera egingo da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina



## **DEGIKO UDALA**

(SPKLTB) onartzen duena (105.-108., 219. eta 220. artikulua), edo berau ordezkatzeko duen araudiaren arabera.

### **38. klausula – Kontratua etetea**

Administrazioak kontratua bertan behera uztea adosten badu, dagokion bertan behera uzteko akta egin beharko da, SPKLTBren 220.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Bertan behera uzteko akta, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Nagusiaren (APKLAN) 103. artikuluan arabera, kontratazio-organo baten ordezkariak eta kontratistak sinatu beharko dute, eta bi egun balioduneko gehienezko epea ezarriko da, bertan behera uztea adosten den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Administrazioak eragindako kalte-galerak eman beharko dizkio kontratugileari.

## **VVII. KONTRATUA AMAITZEARI BURUZKO XEDAPENAK**

### **39. klausula – Hartzea eta likidatzea**

Kontratuaren harrera eta likidazioa SPKLTBren 222. eta 307. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik egingo dira.

Administrazioak erabakiko du kontratugileak emandako prestazioak bat datozen kontratua gauzatzeko eta betetzeko ezarritako preskripzioekin, eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak emateko eta atzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko du, horiek jasotzen dituenean.

Kontratugileari egotz dakizkiokeen akats edo hutsegiteengatik, egindako lanak kontratatutako zerbitzuarekin bat ez badatoz, Administrazioak baztertu ahal izango du, ordaintzetik salbuetsita egongo da, edo, hala badagokio, eskubidea izango du ordura arte ordaindutakoa berreskuratzeko.

### **40. klausula – Bermearen epea eta behin betiko bermea itzultzea edo baliogabetzea**

Bermeak iraungo du kontratua amaitu arte eta zerbitzua edo lana jaso edo oniritzia eman arte. Epe horretan, administrazioak aukera izango du emandako zerbitzua edo egindako lana bat ote datorren egiaztatzeko, batetik, horiek egiteko eta betetzeko jarritako preskripzioekin eta, bestetik, plegu honetan eta preskripzio teknikoaren pleguan xedatutakoarekin. Urtebeteko berme-aldia igarotakoan, emandako zerbitzuei eta



## **BERGIAKO UDALA**

egindako lanei eragozpenik jartzen ez bazaie, kontratugileak ez du erantzukizunik izango aurrerantzean.

Berme-aldian hutsak edo akatsak sumatuko balira egindako lan edo zerbitzuetan, kontratazio organoak eskubidea izango du kontratugileari horiek konpon ditzala eskatzeko.

### **41. klausula – Kontratua haustea**

Kontratua suntsituko da plegu honetan eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 223. eta 308. artikuluetan adierazitako egoerak gertatzen badira. Kontratazio organoak berak erabakiko du, ofizioz edo kontratugileak eskatuta.

Kontratua kontratugilearen erruz suntsitzen bada, behin betiko bermea konfiskatuko da, administrazioari eragindako kalteengatik kalte-ordainean eragin gabe, bermearen zenbatekoa baino handiagoa bada.

## **VIII. KONTRATUAREN DEUSEZTASUNEN ERREKURTSOAK, BEHIN-BEHINEKO NEURRIAK ETA KASU BEREZIAK**

### **42. klausula – Errekurtsoen erregimena**

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 40. artikulua arabera, honako hauen kontra jar daiteke aukeran kontratazio-arloko errekurtsu berezia: lizitazio-iragarkiak, pleguak eta kontratazioa arautu behar duten baldintzak ezartzen dituzten kontratu-agiriak; esleipen-prozeduran onartutako izapide-egintzak, baldin eta izapide horiek, zuzenean edo zeharka, esleipenari buruzko erabakiak hartzen badituzte, prozedurak aurrera jarraitzea eragozten badute, edo defentsa-gabezia edo eskubide eta interes bidezkoetan kalte konponezina sortzen badute; eta kontratu honetako esleipen-erabakiak. Errekurtsu hori administrazioarekiko auzien errekurtsu jarri baino lehen edo ordeztu jarri ahal izango da, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, jurisdikzioa arautzen duenaren, arabera.

Kontratu honen ondorioei, betetzeari eta iraungipenari dagokionez, kontratazio-organok egiten dituen ekintzen aurka dagokion administrazio-errekurtsu arrunta jarri ahal izango da, azaroaren 26ko 30/1992 Legean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan, ezarritakoaren arabera. Bestela, administrazioarekiko auzien errekurtsu jarri ahal izango da, uztailaren 13ko 29/1998 Legean, jurisdikzioa erregulatzen duenean, ezarritakoaren arabera.



## **DERIOKO UDALA**

Kontratu hau interpretatzeko, betetzeari buruzko zalantzak konpontzeko, interes publikoko arrazoiengatik aldatzeko eta ebazpena eta ondorioak adosteko eskumenak baliatuz kontratazio-organoak egiten dituen akordioei aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaie, azaroaren 26ko 30/1992 Legean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan, ezarritakoaren arabera. Bestela, administrazioarekiko auzien errekurtsoa jarri ahal izango da, uztailaren 13ko 29/1998 Legean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa erregulatzen duenean, ezarritakoaren arabera.

### **43. klausula – Behin-behineko neurriak**

Kontratazio-arloko errekurtso berezia jarri baino lehen, hori ezartzeko eskumena duten pertsonak hori ebatzi behar duen organo eskudunari eskatu ahal izango diote behin-behineko neurriak hartzeko, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren (SPKLTB) 43. artikuluan ezarritakoaren arabera.

### **44. klausula – Baliogabetasun erregimena**

Kontratu hau prestatzeko eta esleitzeko ekintzak azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren (SPKLTB) 31.-36. artikuluetan aurreikusitako baliogabetasun orokorraren erregimenaren menpe daude).

### **45. klausula – Jurisdikzio eskuduna**

Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzio Araubidea da eskuduna kontratu hau prestatzearekin, esleitzearekin, haren ondorioekin, betetzearekin eta iraungitzearekin lotuta sor daitezkeen legezko alderdiak ebazteko.



**DERIOKO UDALA**

**I. Eranskina- Karatularen eredia**

[Prozeduraren titulua]

Dagokiona:

**A**

**KARTAZALA:**

[Pleguko dagokion klausulan deskribatuta dagoen dokumentazioa]

**B**

**KARTAZALA:**

[Pleguko dagokion klausulan deskribatuta dagoen dokumentazioa]

**C**

**KARTAZALA:**

[[Pleguko dagokion klausulan deskribatuta dagoen dokumentazioa]]

**Enpresa lizitatzaillearen datuak:**

Sozietate-izendapena:

IFK:

Helbidea jakinarazpena egiteko:

Kode Postala eta herria

Telefonoa:

Faxa:

Helbide elektronikoa:

**Ordezkoaren datuak:**

Izena eta abizenak

NAN:

Eguna

Ordezkoaren sinadura:



**DERIOKO UDALA**

## II. Eranskina- Erantzukizunpeko adierazpena

### ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

PROZEDURA [LIZITAZIOAN DAGOEN DEN KONTRATUAREN IZENA]

Jn./and.:

NAN zb.:

Bere izenean.

Honakoaren izenean:

NAN/IFZ

Helbidea:

Pota-kodea:

Herria:

Tel.:

Sakelako telef.:

Helbide elektronikoa:

### **HONAKOA AITORTZEN DUT::**

1. Ordezkatzen dudan enpresak eskumena du Derioko Udalarekin kontratu bat egiteko; izan ere, jarduteko gaitasuna du eta ez dago SPKLTBren 60. artikuluan kontratatzea eragozten duten debekuetako batean ere sartuta..
2. Ordezkatzen dudan enpresak egunean ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
3. Ordezkatzen dudan enpresan, langileen % 2 edo gehiago elbarrituak dira, edo, hala izan ezean, enpresak apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuaren 2. artikuluan zehaztutako neurriren bat hartu du.
4. Ordezkatzen dudan enpresak, ireki, instalatu eta legez jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza eta betekizun guztiak betetzen ditu.
5. Gobernu-kideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko Goi Karguen interesen arteko gatazkak arautzen dituen apirilaren 10eko 5/2006 Legeak



## **DERIOKO UDALA**

goi-karguen bateraezintasunen inguruan aipatzen dituen pertsonak ez daude enpresa honetako gobernu- eta administrazio-organoetan.

6. Enpresa hau eta enpresa honetako gobernu- eta administrazio-organoetako kideak ez daude tokiko korporazioek kontratatu ahal izateko ezgaitasun eta bateraezintasun kasuren batean sartuta.

Eta jasota gera dadin Derioko Udalarari dagokion kontratazio espedientean, adierazpen hau izenpetzen dut nire ardurapean.

(Tokia, data eta lizitatzaillearen sinadura)

(lizitatzaille atzerritarrentzat bakarrik):

Espresuki honakoa aitortzen dut:

- a) Nire burua Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen ditut kontratutik zuzenean edo zeharbidez sor litezkeen gorabehera guztietarako
- b) Uko egiten diot lizitatzailari legokiokeen atzerlko barrutiko jurisdikzioari.

(Tokia, data eta lizitatzaillearen sinadura)





## **DERIOKO UDALA**

### **III. Eranskina- Euskadiko Autonomiadun Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean datuak indarrean daudela egiaztatzeko adierazpen eredia**

Jn/and.:

NAN zk.:

Bere izenean.

Honakoaren izenean:

Entitate/enpresaren izena eta abizenak:

NAN/IZF:

Helbidea:

KP:

Herria:

Tel.:

Sakelako telf:

Helbide elektronikoa:

SPKLTBren 146.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, Lizitatzailleen eta Enpresa Saillkatuen Erregistro Ofizialen batean inskribatutako lizitatzailleek ziurtagiria (83. artikulua 2. paragrafoan aurreikusitako agiria) aurkezten badute, orduan, agiri horrez gain, lizitatzaillearen erantzukizunpeko adierazpena erantsi beharko da, ziurtagiri horretan jasotako datuak ez direla aldatu adieraziz.

#### **.HONAKOA AITORTZEN DUT:**

Jarraian zehaztutako agirietan:

- a) Enpresariaren izaera juridikoa eta, hala badagokio, haren ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak.
- b) Enpresaren sailkapena egiaztatzen duten agiriak edo kaudimen ekonomikoari, finantzarioari eta tekniko-profesionalari buruzko baldintzak justifikatzen dituztenak..

Ez da aldaketarik egin.

Eta jasota gera dadin Derioko Udalarri dagokion kontratazio espedientean, adierazpen hau izenpetzen dut nire ardurapean.

, , 2016ko                      ren                      a.

(Sinadura)



**DERIOKO UDALA**

#### **IV. Eranskina- Konfidentziasun eredua**

PROZEDURA [LIZITAZIOAN DAGOEN KONTRATUAREN IZENA)

Lizitatzaillearen datuak:

Izena:

Helbidea:

NAN/IFZ:

Telefono/faxa:

Helbide elektronikoa:

Ordezkoaren datuak, kasua balitz:

Izena:

Helbidea:

NAN/IFZ:

Telefono/faxa:

Helbide elektronikoa:

:

Aitortzen dut, enpresa honek aurkeztutako eskaintzari dagokionez, ondoan zenbakituta dauden dokumentuak konfidentzialak direla:

1. \_\_\_\_\_
2. \_\_\_\_\_
3. \_\_\_\_\_
4. \_\_\_\_\_
5. \_\_\_\_\_
6. \_\_\_\_\_

(Tokia, data eta lizitatzaillearen sinadura)



## DERIOKO UDALA

### V. Eranskina- Proposamen ekonomikoaren eredia

Jn/and honek, \_\_\_\_\_ . Helbidea: \_\_\_\_\_, udalerrria \_\_\_\_\_ kanean, \_\_\_\_\_ zenbakian duenak, NAN zk. Hau duenak \_\_\_\_\_, eta adinez nagusia denak, \_\_\_\_\_ enpresaren izenean eta ordezkari gisa, helbidea \_\_\_\_\_ udalerrian, \_\_\_\_\_ kanean, \_\_\_\_\_ zenbakian duenak, \_\_\_\_\_ posta-kodean, eta IFZ hau duenak: \_\_\_\_\_, baldintzak ezagutzen dituela lizitazio honetan parte hartzeko: **baldintza administratiboen eta ekonomikoen agiria lehiaketaren bidez kontratatzeko zerbitzu hau: Derioko Udalaren eraikinak eta bulegoak barrutik garbitzeko.** Eta konpromisoa hartzen du zehatz-mehatz betetzeko administrazio baldintzen agiriaren arabera eta baldintza teknikoaren agiriaren arabera, urteko prezio honetan: \_\_\_\_\_, BEZik gabe, (prezio letraz idatzi)

Proposamen ekonomikoa osatzen duten prezio bakoitzaren banakapean honakoa da:

	Urterakoa	Kontratuaren iraupena (4 urte)
Zenbatekoa (BEZik gabe)		
BEZ		
Guztira		

Kontzeptua	Guztira (€) /urtean, BEZik gabe
Soldatak	
Material ezberdinak	
Uniformeak eta arropak	
Material kontsumigarria	
Enpresaren gastu orokorrak	
Gastu ezberdinak	



**DERIOKO UDALA**

Amortizazioa	
Kostu finantzarioak	
Zergak	
Mozkin industriala	

Eta horrela, jasota gera dadin dokumentu hau sinatzen dut, \_\_\_\_\_,  
2016ko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_a.

[Sinadura]

[Kargua]



## DERIOKO UDALA

### VI. Eranskina- Behin betiko abalaren eredia

.....erakundeak (bankua/kutxa),  
IFZ ..... duenak, helbidea ..... udalerrian, .....  
kalean duenak, eta haren izenean eta ordezkari gisa .....  
jaunak/andreak, botereak dituenak,

#### ABALATU EGITEN DU:

Solidarioki Administrazio Publikoen Kontratuen Legedian ezarritako baldintza orokorretan, IFK edo IFZ ..... izanik, Derioko Udalaren aurrean, ..... zenbatekoagatik (zenbakietan eta letretan), behin betiko fidantza gisa .....ko kontratua gauzatzetik eratorritako betebeharrak betetzea bermatzeko, Derioko Udalak ..... datan .....ren eskutik ..... zenbatekoarekin egindako esleipenaren arabera.

. Erakunde abal-emaileak bere erantzukizunpean adierazten du bete egiten dituela Herri Administrazioetako Kontratuei buruzko Legearen araudi orokorrak bere 56.2. artikuluan zehaztutako baldintzak. Berme hori solidarioki ematen da betebeharrak nagusiari dagokionez, berriaz uko egiten zaio eskusio-onurari eta konpromisoa hartzen da sozietatearen lehen errekerimendua ordaintzeko Diru-bilketari buruzko Araudi Orokorraren 108. artikuluan ezarritako epean.

Berme hau indarrean egongo da Derioko Udalak berau ezeztatzea edo itzultzea baimentzen duen arte, arestian aipatutako Administrazio Publikoen Kontratuen Legean eta legedia osagarrian ezarritakoaren arabera.

Berme hau ..... datan inskribatu da Bermeen Erregistro Berezian, ..... zenbakiarekin. .

.....2016ko .....ren....a

(Tokia eta data)

(Entitatearen helbidea)

(Apoderatuaren sinadura)